



Bisitariak Sagardo Forumean, Donostiako Kursaal jauregian. SAGARDOAREN LURRALDEA

NAZIOARTEKO SAGARDOEN TOPAKETA V. SAGARDO FORUMEAN

Euskal Herriko sagardoaren kultura nazioartean ezagutarazteko eta nazioarteko sagardoak Euskal Herrian ezagutzeko helburuz, azaroaren amaieran V. Sagardo Forumak antolatuko du Sagardoaren Lurraldea elkarteak.

Sagardoaren Lurraldea elkarteak (sagardoarenlurraldea.eus) azaroaren amaieran antolatuko du V. Sagardo Forumak. Aurrekoan bezala, zenbait arlotan egituraturako da azken urteotan nazioartean topaketa garrantzitsua bilakatu dena: sagarrari eta sagardoari buruzko jardunaldi teknikoak izango dira, Sagardo Astea dastaketa bereziki, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa eta Nazioarteko Sagardo Azoka.

Hiru egunetan, Euskal Herrian

sagardoaren kultura barnera-
tzeke eskaintza berritzailea eskai-
niko du Sagardo Forumak; Sagard-
doekoizleak, adituak eta sagardo-
zaleak elkartuko dira, eta sagard-
doaren kulturaz gozatzeko jard-
duera ugari izango dira: adituen
hitzaldiak, txangoak, sagardo
dastaketak, sagardotegietako
otorduak, sagardo lehiaketa, mu-
sikak giroa emango du sagardo azoka,
eta abar.

Nazioarteko sagardoak ezagu-
tarazteaz gain, Sagardo Forumak
euskal sagardoaren kultura nazio-
artean kokatzeko funtzio garrantzitsua bete du orain arte:

Euskal Herriko mugetatik harago
sagardoaren kultura ezagutarazi
du, eta nazioarteko sagardoak
Euskal Herrian ere ezagutarazi di-
tu, nazioarteko harremanak sen-
dotu eta nazioartean sagardoa
ekoizten duten norakoekin Cider-
lands sarea osatu arte.

NAZIOARTEKO EKITALDIAK

Geroz eta gehiago dira sagardoari
buruzko ekitaldi eta jaialdiak an-
tolatzen dituzten herrialdeak, eta
aurten ere lekua izan dute nazio-
arteko topaketetan.

Martxoaren 23tik 26ra, Inter-

national Cider Summit Asturias
antolatu zen estreinakoz Xixonen
(Asturias, Espainia). Sagardo as-
tea, sagardo hitzaldiak eta sagard-
do jaialdia antolatu ziren, eta sa-
gardoaren munduko topaketa
garrantzitsua bat izan zen (internationalcidersummit.com).

Martxoaren 25ean Sidra & Eno-
turismo Jardunaldia izan zen Gali-
zian, eta martxoaren 26tik 27ra,
berri, Cidrexpo azoka Caen hir-
ian (Frantzia), 300 sagardorekin
(www.cidrexpo.com).

Apirilaren 13tik 15era, Cider &
Spring Festival ekitaldia egin zen
Amstetten hirian (Austria), eta

Sagardoaren Lurraldeak parte
hartu zuen Ciderlands sareko
hitzaldia eskaintzen, beste elkar-
te batzuekin batera. Hitzaldiez
gain, sagardotegietara bisitak
egin zituzten, eta sagardo jaialdi
bat antolatu (www.cider-festival.at).

Apirilaren 13an eta 14an,
berri, Crafton ekitaldia izan zen
Cincenser hirian (Erresuma
Batua), aditu ugariaren hitzaldie-
kin (craftcon.co.uk).

Maiatzaren 10ean, Erresuma
Batuan, International Cider &
Perry Competition lehiaketa izan
zen Herefordeko Cider Museum

museoan (www.cidermuseum.co.uk/cider-perry-competition), eta maiatzaren 11tik 13ra, Norvegiar, Hardanger Internazional Siderfest ekitaldia (www.siderfest.no), sagardo festibalarekin eta hainbat dastaketarekin.

Ekainaren 3an, International Natural Cider Competition lehiaketa izango da Madeiran (Portugal), eta ekainaren 3an eta 4an, berriz, sagardo azoka egingo da A Estradan (Galizia).

ISASTEGI SARITUA FRANKFURTEN

Apirilaren 27tik 29ra, nazioartean erreferentzia garrantzitsu bat den Cider World (cider-world.de) ekitaldi entzutetsua antolatzen du Frankfurt hirian (Alemania). Ekitaldi horren barruan, nazioarteko sagardo lehiaketa garrantzitsuenetarikoa bat dena egin zen, eta Tolosako (Gipuzkoa) Isastegi sagardotegiak (www.isastegi.com) eramandako Premium sagardo naturalak urrezko domina lortu zuen, 120 puntuetatik 109 lortuta. Apirilaren 27an eman zioten saria.

NICA EKTALDIA

Euskadi Basque Country Eusko Jaurlaritzako turismoa agentziak (turismoa.euskadi.eus) eta Sagardoaren Lurraldea elkarteak NICA 2022 & Norwegian Cider Festival ekitaldian (www.siderlandet.no) parte hartu zuten azaroaren 11n, 12an eta 13an, Bergen hirian (Norvegia) antolatzen den sagardoari buruzko ekitaldi entzutetsuan.

Ekitaldi horretan, sagardoaren, kulturaren eta gastronomiaren sektoreko ehunka pertsona bildu ziren. Sagardoaren Nazioarteko Lehiaketa Eskandinaviarra, Norvegiako Sagardoaren Jaialdia, sagardoari eta enoturismoari buruzko hitzaldiak, Euskadi Basque Country erakundeak eskainitako Mundua lau kolorez margotua afaria, eta Sagardoaren Lurraldeak parte hartu zuen Ciderlands Sareko III. Topaketa (ciderlands.org) antolatzen ziren. Sagardoaren Lurraldea elkarteak Ciderlands nazioarteko sareko kidea eta sortzailea da.

Euskadi Basque Country erakundeak Hanen Norvegiako landa turismoaren eta nekazaritza produktuen erakunde nazionalarekin elkarlanean antolatzen duen Mundua lau kolorez margotua izeneko afaria. Tolosako Ama (Gipuzkoa) jatetxeko Javi Rivero eta Gorka Rico sukaldariak, Bergen hiriko House Of Telle jatetxeko Morten Tungevik sukaldariak eta Astigarragako



International Cider Summit Asturias ekitaldia, Xixonen. SAGARDOAREN LURRALDEA

(Gipuzkoa) Zaplain sagardotegiak (www.zaplain.eus) Ion Zapiainek sagardoaz lagundutako menu euskal-norvegiarra prestatu zuten.

Afarian ehundaka lagunek parte hartu zuten: Ciderlands sareko nazioarteko ordezkariak, sagardoaren munduan ezagunak diren nazioarteko epaileak, zenbait turismo erakundetako eta bidaia agentziatako ordezkariak, eta Norvegiako hainbat komunikabidetako ordezkariak.

NICA 2022 & Norwegian Cider Festival ekitaldiko hitzaldietan, Euskadi Basque Country erakundeak parte hartu zuen. Hain zuzen ere, Ciderlands sareko ordezkari gisa joandako Haritz Rodriguezek *How to build a gastronomic nation* (Nola eraiki nazio gastronomikoa bat) hitzaldia egin zuen, Euskal Autonomia



Euskadi Basque Country Eusko Jaurlaritzako turismo agentziako eta Sagardoaren Lurraldea elkarteak ordezkariak, Norvegiar. SAGARDOAREN LURRALDEA

Erkidegoa (EAE) nazioartean turismo gastronomikoko helmuga ezagun bilakatu duen ibilbidea ezagutarazteko. Hitzaldian, Euskadi Gastronomika erakundeak (www.euskadigastronomia.eus) EAEko turismo gastronomi-

koaren eskaintzaren eratzaila gisa duen rola nabarmendu zuen, eta bere eskaintza gastronomikoa aurkeztu: pintxoak, Michelin izarrak dituzten jatetxeak, sagardo-

tegiak eta Sagardoetxearen gisako museo gastronomikoak.

Azkenik, Ciderlands Sareko III. Topaketan, Sagardoaren Lurraldeaz gain, Britainiako zenbait turismo erakundek parte hartu zuten, baita Armagh (Irlanda), Mostviertel (Austria), Herefordshire (Erresuma Batua), Hessen (Alemania), Ponte de Lima (Portugal) eta Skane (Suedia) hirietako ere. Bertan, 2023an sagardoaren kulturako turismoa nazioartean sustatzeko egingo diren jarduerak eta sustapen ekintzak zehaztu ziren.

Horrez gain, Norvegiako Hardanger eskualdeko Ulvik Frukt & Cideri, Syse Gard eta Hardanger Saft & Ciderrfabrikk and Lekve Gard sagardotegietan izan ziren, Norvegiako sagardoaren gainean prestatutako enoturismoa eskaintza ezagutzeko.

SATXOTA SAGARDOTEGIA

Urte osoan irekita
Txangurroa labean
Bakailua
pil pil erara

Santio Erreka Auzoa
AIA (Oriotik kilometro batera)
943 83 57 38 - 618 303 584
www.siderriasatxota.com



Oriotik oinez etortzeko aukera



www.oialumezar.com

Mikel Arceizena 16, ASTIGARRAGA tel. 943 55 29 38